

2021-22 IKASTURTE HASIERARAKO FAMILIENTZAKO JARRAIBIDEAK

HASIERA

1. Eskolak irailaren 8an hasiko dira. Ikasturteko lehen egunean suertatu ohi diren pilaketak sahiesteko, sarrera mailakatua izango da:

- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak, 9:25ean.
- Lehen Hezkuntzako gainontzekoak, 9:30ean.
- Haur Hezkuntza, 9:45ean (bakar-bakarrik irailaren 8an, gero 9:30 eta 9:40 bitartean). Garraiatuen kasuan, eta bereziki 3 urtekoen kasuan, komenigarria da familiarekin etortzea baina ezinezkoa bada, autobusa erabil daiteke eta 9:30ean etorri.

BIZIKIDETZA EGONKORREKO TALDEAK

2. **Haur Hezkuntzan**, ikasle-talde egonkorrek osatuko dira eta tutorearekin batera Bizikidetza Egonkorreko Taldeak (BET) edo "burbuila taldeak" osatuko dituzte. Talde horietan, kideek elkarren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete, pertsonen arteko distantzia zorrotz mantendu beharrik gabe. Ikasleek eta tutoreek osatutako burbuila talde horiek ez dira beste talde batzuekin harremanetan jarriko, eta ikastetxean egiten diren jarduera guztietan estankotasuna bermatuko da.
3. **Lehen Hezkuntzan** Bizikideta Egonkorreko Taldeak edo burbuilak osatuko dira, Haur Hezkuntzako estankotasun baldintza berberetan. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa da, baina ikasleek beren talde/ikasgelan (BET) elkarreragin eta harremanak izan ahalko dituzte. Ikasgela barruan lan-azpitalde egonkorrek sortu ahal izango dira, 4 edo 5 ikaslez osatuak, haien distantzia-mugarik gabe, baina azpitalde horiek gutxienez 1,5 metroko distantziari eustea gomendatzen da. Aire zabaleko jolas eta jardueretan, Bizikidetza Egonkorreko Talde bereko ikasleek jarduera eta jolasetan elkarreragin eta harremanak izan ahalko dituzte. BET horiek ez dira beste talde batzuekin harremanetan jarriko, eta ikastetxean egiten diren jarduera guztietan taldearen estankotasuna bermatuko da.

SINTOMAK ETA POSITIBOEN KUDEAKETA

4. Ez da inola ere Ikastolara etorri behar gaixotasunaren sintomarik badago (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...). **Ikastolara etorri aurretik beti temperatura hartu behar da etxean.**
5. Sintomak Ikastolan agertzen badira, familiari jakinaraziko zaio, ikaslea berehala jaso dezan. Bitartean, horretarako propio prestatutako isolamendu-gela batera joango da ikaslea (maskara jarrita). Gela honek higie eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. Ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko arlo medikuari jakinaraziko dio.
6. Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentearekin harremanetan jarriko da. Kasua baieztatzen bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurune eta handik kanpoko kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez, Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.

Osasun-agintariek jarraipen aktiboa egingo dute kontaktu estuztat identifikatutako ikasleen artean eta adieraziko dute zeintzuk egon beharko duten berrogeialdian.

MASKARAK

7. Maskara derrigorrezkoa da Lehen Hezkuntzan egoera eta jarduera guztietan. Ikasle bakoitzak bere maskara ekarri behar du, ahal dela izenarekin markatuta. Maskara kirurgikoa erabiliz gero, bi ekarri beharko dira: bat jarrita eta beste bat arratsaldean erabiltzeko.

Haur Hezkuntzan maskara ez da derrigorrezkoa.

Ikastolako irakasle eta gainontzeko langile guztiek maskara erabili behar dute une oro.

IKASTOLARAKO SARBIDEA

8. Ikastolako sarrerak eta irteerak leku bereizietatik egingo dira mailakatuta, ikasleak eta familiak pilatzea sahiesteko:

- Lehen Hezkuntzako 5-6: 9:25ean sartu eta 16:55ean irten (ostiraletan 13:00etan). Arratsalde eskolarik ez dagoenean, 13:25ean.

Ikastola sartzeko eta irtetzeko, alboko ate berdeak erabiliko dituzte eta atzeko patio estalitik sartuko dira eraikinerara, bereizita (5. mailakoak ate batetik eta 6. mailakoak bestetik). Familiak ez dira Ikastolako barrutira sartuko, ikaslea ate berdean utziko dute, atzeko patiora joan gabe.

- Gainontzeko Lehen Hezkuntzako ikasleak: ohiko ordutegia, sarrera 9:30ean eta irteera 17:00ean (13:30ean goizez gauden bitartean).
 - Lehen Hezkuntza 1-2: ate nagusitik sartu eta irtengo dira. Familia Ikastola barrutira sartuko da bakar-bakarrik ikaslea uzteko edo jasotzeko, patioan gelditu gabe.
 - Lehen Hezkuntza 3-4: Ikastola sartzeko eta irtetzeko, alboko ate berdeak erabiliko dituzte eta atzeko patio estalitik sartuko dira eraikinerara, bereizita (3. mailakoak ate batetik eta 4. mailakoak bestetik). Familiak ez dira Ikastolako barrutira sartuko, ikaslea ate berdean utziko dute, atzeko patiora joan gabe.
- Haur Hezkuntza: sarrera malguta 9:30 eta 9:40 bitartean (irailaren 8an izan ezik). Irteera 16:55etan (13:30ean goizez gaudenean).
 - 2 urtekoak, eraikineko patioko alboko atetik.
 - 3 urtekoak, Errota Zahar kaleko alboko atetik. eraikineko ate nagusitik.
 - 4 urtekoak, eraikineko ate nagusitik (3 urteko gelan egiten zen bezala).
 - 5 urtekoak, atzeko patioko atetik (4 urteko gelan egiten zen bezala).
 - Seinaleak egongo dira eta, lehengo egunetan, irakasleak egongo dira dena azaltzeko.
- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleen familiek ate nagusitik sartu behar dute Ikastolako esparrura eta eta patio estali berriaren ondoko atzeko atetik irten.
- Garrantzitsua da zirkulazioaren noranzko hori errespetatzea eta patioan pilaketak ez sortzea. Ikastolara garaiz heldu behar da, hau da, ez ordua baino lehenago. Helduek segurtasun-distantzia errespetatu behar dute maskara jantzita eta Ikastola esparruan egongo dira ikasleak uzteko edo jasotzeko behar den denbora laburrean.

JANTOKIA

9. JANTOKIA:

- Haur Hezkuntzan txanda bakar batean bazkalduko dute. Bizikidetza-talde egonkorak izanik, gela bakoitzekoek mahai berean bazkalduko dute, haien artean distantzia gorde gabe baina bai talde desberdinen arteko tartearik gordeaz. Umeak leku berean jazarriko dira ikasturte osoan zehar.
- Lehen Hezkuntzan bi txanda egongo dira eta jantoki biak erabiliko dira, Haur Hezkuntzakoak ere bai. Distantzia gordeko da ikasleen artean eta taldeen artean. Umeak leku berean jazarriko dira ikasturte osoan zehar.
- Irailaren lehenengo bi aste hauetan, ikasleak 14:50etatik 15:00etara bitarte jasoko dira, Haur Hezkuntzakoak goizean sartzeko erabili diren leku berdinetan eta Lehen Hezkuntzakoak estalitako patio berrian.
- Irailaren 20tik aurrera, ostiraletan, 14:30etatik 15:00etara bitarte jasoko diira ikasleak, arestian azaldutako modu berean.
- Ikasturte honetan ez da egun solteetan geratzeko aukerarik egongo.
- Urriaren 15etik aurrera ez dira ikasleak jantokian onartuko baldin eta plaza librerik ez bada eta ohiko jankidea ez bada.

HIGIENE

10. Higiene-neurriak areagotuko dira egunean zehar:

- Eskuak sarri garbituko dira (5 aldiz egunean), Haur Hezkuntzan xaboa erabiliz eta Lehen Hezkuntzan, gel hidro-alkoholikoz.
- Ikasgelak sarritan aireztatuko dira egunean zehar.
- Komunak egunean 3 aldiz garbituko dira.

JOLASALDIK

11. Jolasaldietako ordutegiak eta espazioak berrantolatuko dira ahalik eta talde gutxien batera egon daitezen.

- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak ez dira denbora berean edota espazio berean batera egongo.
- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak: 11:30-12:00, aurreko patioetan.
- Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak: 11:00-11:30, aurreko patioetan.
- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak: 11:00-11:30, atzeko patioetan
- Elkarrekintzak talde bereko ikasleen artean izango dira, ez taldeen artean.
- kontaktu fisikoa dakarten jolasak ez dira baimenduko.

GARRAIOA

12. Eskola-garraioan maskara derrigorrezkoa da 6 urtetik aurrera (eta gomendagarria gainontzekoentzat). Ikasleak leku berean jazarriko dira beti eta bizikidetza-talde bereko ikasleak elkarren ondoan egon daitezen ahaleginduko da.

BESTELAKOAK

13. Barnetegiak eta eskolaz kanpoko ekintzak baimendu dira (baldintza zehatzak betez gero). Aurrerago honen berri emango da.

14. Printzipioz, ez dira dutxak erabiliko Gorputz Hezkuntzako klasearen ondoren, aldageletan ezin baita bermatu ez segurtasun-distantzia, ez maskararen erabilera.

15. Goizeko gela eta Ikasgune zerbitzuak mantenduko dira.

KOMUNIKAZIOA

16. Ikastolara sartzeko alde zurretik hitzordua ezinbestekoa da.

17. Ikasturte hasierako bilera orokorren datak ondorengo egunetan jakinaraziko dira. Bileretara, ikasle bakoitzeko, pertsona bakar bat etorriko da, maskaraz eta distantziak gordez.

18. Edozertarako, Whatsappaz gain, erabili 944287869 telefono-zenbakia edo ondorengo posta elektronikoak:

- Gai orokorrak edo administratiboak: info@muskizkoikastola.com
- Jantokia: rikardomuguruza@muskizkoikastola.eus
- Laster barru irakasle guztien helbide elektronikoak bidaliko dira.